

ZARAUZKO UDALEKO KOLEKTORERA EGITEN DIREN ISURKETAK ARAUTZEN DITUEN ERREGELAMENDUA

Hitzaurrea

Zarauzko Udalak jakin badaki saneamendu sistema orokorraren ustiapen zuzena egiteko legezko tresna administratibo baten beharra dagoela, hori dela eta Erregelamendu hau onartu du, epe ertain eta luzera begira isurketa guztiak arautzeko asmoz.

1. artikulua.- Helburua eta aplikazio-eremua

Erregelamendu honen helburua estolda-sare publikora egiten diren hondakin-uren isurketak arautzea da eta xedeak ondoren adierazitakoak dira:

- Sarea eta dagozkion instalazio osagarriak babestea, osotasun materiala eta funtzionala ziurtatzeko.
- Ustiapeneko eta manteni-menduko pertsonalaren segurtasuna bermatzea.
- Hondakin-uren arazketa prozesuak ez etetea edo eragozte.
- Organo Eskudunak efluente edota ur-hartzaileentzat ezarritako kalitate-helburuak betetzea.
- Hondakinak arriskugarri bihur ditzakeen substantzia arriskutsurik sar ez dadin bermatzea.

2. artikulua.- Aplikazio-eremua

Erregelamendu hau Zarauzko Udalaren saneamendu-sarea erabiltzen duten guztiei eta, ezarritako urratsak bete ondoren etorkizunean Kontsorzioaren kide bihurtzen direnei aplikatuko zaie.

3. artikulua.- Definizioak

Estolda-sare publikoa:

Erregelamenduaren aplikazio-eremuan sortutako hondakin-urak bildu eta eramatea ahalbidetuko duen jabego publikoko obren edo instalazioen multzoa.

Estolda-sare pribatua

Jabego pribatuko instalazioen multzoa, bat edo hainbat erabiltzailerengandik datozen hondakin-urak bildu eta estolda-sare publikora isurtzen dituen.

Araztegia:

Saneamendu publikoaren sareetatik datozen hondakin-uren arazketarako beharrezkoak diren egitura, mekanismo eta instalazioen multzoa.

Hiriko hondakin-urak:

Etxeko hondakin-urak edo ur horien eta industriatik etorritako hondakin-uren nahasketa.

Etxeko hondakin-urak:

Etxeetako hondakin-urak, giza metabolismoak eta etxeko jarduerak sorturikoak nagusiki.

Industriako hondakin-urak:

Edozein jarduera (merkataritza, industria, etab.) bideratzeko erabiltzen diren lokalek isurtzen dituzten hondakin-ur guztiak, etxeko hondakin-urak eta euri-urak ez direnak.

Isurketarako baimena:

Erabiltzaile bakoitzak bere hondakin-urak estolda-sare publikora isuri ahal izateko behar duen baimena.

Hondakin berezien planta zentralizatua:

Aldez aurretik tratatuak izanda ere, estolda-sare publikoan onartezinak diren hondakin-urak tratatzeko egitura, mekanismo eta instalazioen multzoa, izaera publiko edo pribatua izan dezakeena.

Erabiltzailea:

Pertsona natural edo juridikoa, etxebizitza, jarduera, denda edo industria baten titularra, hondakin-urak sortzen dituena.

Erabiltzaileak honela sailkatzen dira:

A Mota: ura bere etxebizitzan bakarrik erabiltzen duena, bestelako merkataritza- edo industria-erabilerarik gabea, betiere ur-erabilpenak urteko eta etxebizitzako 500 m³ -ko kopurua gainditzen ez badu.

B Mota: urteko eta etxebizitzako 500 m³ baino kontsumo handiagoa duten etxebizitzak eta urteko eta etxebizitzako 3.000 m³ baino kontsumo txikiagoa egiten duten merkataritza, industria edo bestelako jardueretan diharduten erabiltzaileak eta 70 biztanleren baliokidea baino gutxiagoko karga dutenak.

C Mota: urteko eta etxebizitzako 3.000 m³ baino kontsumo handiagoa duten merkatal edo industri jardueren ur erabiltzaileak, edo udalerritik kanpoko ur-baliabideak erabiltzen dituztenak, edo 70 biztanleren baliokidea baino handiagoko karga dutenak.

- Aurreko paragrafoko baldintzak betetzen ez dituztenak eta gainera, kolektoreetan isurketa oldarkorrak sor ditzaketen prozesuak edo metal astunak edo inhibidoretzat har daitezkeen materialak dituzten prozesuak dituztenak, arazketa-prozesuetan sortzen duten eragin negatiboarengatik.

Biztanle baliokidea:

Eguneko 60 gr. oxigenoko karga organiko biodegradagarria duen 5 eguneko oxigeno-eskari biokimikoa (DBO₅).

Aurretratamendurako planta:

Egitura, mekanismo eta instalazio pribatuen multzoa da. Bere eginkizuna industria edo merkataritza-jarduera bateko edo batzuetako hondakin-urak tratatzea da, ur

horiek Erregelamendu honetako eskakizunetara egokitu eta, saneamendu-sare publikoan onartu ahal izateko.

4. artikulua.- Estolda-sare publikoaren erabilera

Estolda-sare publikoa derrigorrez erabili beharko dute 70 biztanle baliokidetik beherako karga duten isurketen eragile guztiek, hurbilen dagoen estolda-sare publikotik 200 m-ra edo gertuago ezarrita daudenean. Horretarako, Udalak eta erabiltzaileek beharrezko neurriak hartzeaz gain, behar diren obrak egingo dituzte, bere eskumenen arabera, hondakin-urak aipatutako estolda-sarera isurtzeko.

C motako erabiltzaileek bi hauetako bat aukera dezakete:

- Estolda-sare publikoa erabiltzea. Aurrez isurtzeko baimena eskuratuko dute, Erregelamendu honen arabera, eta euren kontura izango dira egin beharreko obrak eta ipini beharreko instalazioak.
- Saneamendu-saretik kanpora isurtzea. Aurrez horretarako eskumena duen organismoak emandako isurtzeko baimena eskuratu beharko dute.

Ur hondakinak, normalean, udalerriko estolda-sarera isuriko dira eta, salbuespenez, saneamendu-sare orokorrera. Isurketa Zarauzko Udalak baloratuko du, nolahi ere, zirkunstantzia hauek aintzat hartuta:

- Isurketen konposizioa.
- Isurketen bolumena; udal-sarearen edukiera hidraulikoa arriskuan ipini baitezake.
- Isurketatik gertuen dagoen udal-sarerrainoko gehiegizko distantzia.
- Komenigarriak diren beste batzuk.

5. artikulua - Estolda-sare publikorako hartunea

Industri pabiloi edo eraikin-multzoetako isurketak lotune bakar batez bideratuko dira estolda-sare publikora, Zarauzko Udalaren ustez behar bezala egiaztatutako zirkunstantzietan edo 200 metro baino gehiagoko distantzietan izan ezik.

Euren hondakinak estolda-sare pribatu beraren bidez kanporatzen dituzten estolda-sare publikoaren erabiltzaileak isurketa baimenaren ondorioetarako titular bakartzat hartuko dira, baita kolektorearen sostengu, mantentze eta konponketa-gastuetan parte hartzeko ere. Beraz, aipatutako sare horren bidez egindako isurketei dagozkien kuotak agiri bakar batean igorriko dira, ondoren aipatutako erabiltzaileen artean banatuko, dira eta hauek solidarioki erantzungo dute. Helburu horrekin, estolda-sare beraren erabiltzaileek ordezkari bat izendatu beharko dute Zarauzko Udalarekin izan beharreko harremanetarako

Zarauzko Udalak ezarritakoaren arabera estolda-sare pribatua estolda-sare publikora lotu edo txertatzeko baimena emateak, ez du estolda-sare pribatu horretara lotutako industri jarduera bakoitzeko isurketen baimena izatea adierazten; horregatik, aipatutako sare horretan isurketak egin aurretik Zarauzko Udalak erabiltzaile bakoitzari isurketa-baimena eman beharko dio.

Estolda-sare pribatuek izaera bereizlea izan beharko dute, eta euri-urak zuzenean ubidera edo euri-uren sarera bideratuko dituzte.

Putzu septikoak etxeetako hondakin-uren tratamendu indibidualerako sistema dira, eta ez dira bateragarriak saneamendu orokorreko sistemaren funtzionamenduari; ondorioz, saneamendu-sarearen hartunea egin aurretik kendu behar dira.

Sare pribatuek erabiltzaile bat baino gehiago dutenean, erabiltzaile bakoitzaren isurketak kontrolatzea ahalbidetu beharko dute.

C motako erabiltzaileek saneamendu-konexioaren aurretik euren saneamendu-konexioan berezkoa eta bakarra izango den kontrol-kutxeta bat instalatu beharko dute, bertan baimendutako isurketa guztiak bildu daitezten, hartunearen distantzia 200 metro baino handiagoa ez bada.

Kontrol-kutxetak bi motatakoak izan daitezke (II. eranskina):

2 motako kutxeta: estolda-sare publikoan onartezinak diren substantziak isuri ditzaketen fabrikazio-prozesuak dituzten erabiltzaileek jarriko dute kutxeta-mota hau. Gainera, kutxeta-mota honetan, parametro jakin batzuk neurtu beharko dira jarraian; hauek Zarauzko Udalak zehaztuko ditu fabrikazio-prozesuan erabilitako produktuen eta egindako isurketaren ezaugarrien arabera.

Isurketaren titularrak izango du isurketa-baimenean eskatutako neurtzeko aparatuaren kalibraketaren eta mantentze-lanen ardura.

Nolanahi ere, erabiltzaileen kontura izango dira hartuneen eta kontrolerako instalazioen gastuak.

1 motako kutxeta: estolda-sare publikoan isurketak egiten dituzten C motako gainerako erabiltzaileak.

Erabiltzaileak hala proposatuta edo isurketen ezaugarriek hala eskatuta, kontrol-kutxetak Erregelamendu honetan zehaztutakoa ez bezalako diseinua izan dezake. Aurretik Zarauzko Udalak onartu behar du diseinu berri hori.

6. artikulua.- Isurketa debekatuak eta mugatuak

6.1.- Debekuak

Debekatuta dago ondoren adierazitako edozein produktu estolda-sare publikora isurtzea:

a) Hauetako ondorioren bat sor dezakeen edozer:

- Nahasketa sukoi edo lehergarriak eratzea.
- Instalazioetako materialen korrosioa.
- Urak aise jariatzea eta hodiak garbi mantentzea eragozten duten sedimentu, oztopo edo buxadurak.
- Instalazioen ikuskaritza, garbiketa, mantentze edo funtzionamenduko pertsonalaren sarbiderako oztopo diren baldintza toxiko, arriskutsu edo jasangaitzak sortzea giroan.
- Araztegiko lanean eta prozesuetan aurreikusitako tratamendu-mailak lortzea eragozten duten gorabeherak.

b) Ondoren adierazitako produktuak:

- Gasolioa, bentzenoa, nafta, fuel-oilua, petrolioa, olio lurrunkorrek, toluenoa, xilenoa edo sukoia edo lehegarria den edozein solido, likido edo gas.
- Kaltzio-karburua, bromatoa, kloratoak, hidruroak, perkloratoak, peroxidoak, etab... eta arriskua sor dezakeen izaera inorganikodun edozein substantzia solido, likido edo gaseoso.
- Solido, likido edo gas toxiko nahiz pozoitsuak, puruak edo beste hondakin batzuekin nahastuak, sareaz arduratzen den pertsonalarentzat arriskutsuak izan edo eragozpen publikoren bat sor dezaketenak.
- Errautsak, kedarrak, harea, lumak, plastikoak, egurra, odola, lohia, lastoa, simaurra, animalien hondakinak, ileak, erraiak eta buxadurak eragin edo artatze eta garbiketa-lanak oztopatu ditzaketen bestelako gauzak.
- Disolbatzaile organikoak, pinturak eta koloratzaileak edozein neurritan.
- Meatze, landare edo animalien olioak edota koipeak.
- Araztegietan aldaketak sortzeko gai diren farmazia-industrietako edo osasun-zentroetako botikak.
- Hondakinen birringailuetatik datozen solidoak, bai etxeak bai industrialak.
- Produktu toxikoei edo arriskutsuei buruz indarrean dagoen legerian aurreikusitako produktu guztiak.

Debeku horiek kontuan hartu behar dira, Erregelamendu honen 1 taulan zenbait produktuk hondakin-uretan izan dezaketen kontzentrazio-mugari dagokionean ezarritakoari kalterik egin gabe.

c) Honako isurketak:

- Industri isurketak eta likido-kontzentratu baztergarriak, hauentzako tratamendua planta espezifikoki edo planta zentralizatuari dagokionean.
- Erregaiak, errektiboak edo lehengaiak biltegitatzeko tankeak garbitzetik sortutako isurketa etenak. Garbiketa-lan horietako isurketak ezingo dira estolda-sare publikoan hustu.

- Industria prozesuetatik, itsasoko ur-hartzeetatik edo itsas-lurreko eremuetatik datorren ur gazia.
- Abeltzaintzako jardueretatik sortutako hondakin-urak.

d) Ur garbia:

- Debekatuta dago isurketetan diluzio-ura erabiltzea, larrialdi- egoeretan edo egoera arriskutsuetan izan ezik.
- Ez da onartuko ur garbia (euri-urak, zirkuitu irekiko hozketakoa, iturrietakoa, erreketakoa, etab.) estolda-sare publikora botatzea.

6.2.- Mugak

Orokorrean kontrol-kutxetako efluente bakoitzeko beteko dira Erregelamendu honen 1 taulan ezarritako mugak.

Zenbait erabiltzaileren isurketa-baimenetan 1. taulan zehaztutako mugak salbuesenez murriztu daitezke, saneamendu instalazioen kudeaketa orokorrenekin zerikusia duten arrazoi bereziek, besteak beste hainbat kutsatzaileren balantze orokorrak, kalitatezko helburuak lortzeak, edo Europako, estatuko edo autonomia mailako araudiak betetzeak hala eskatuz gero.

Estolda-sare publikoan isurtzeko baimena duten erabiltzaileen isurketak, 1. taulan zehaztutako isurketa-muga gainditzen badu zergapetu egingo da arazketa-sistemetan eragindako kalteen arabera. Kalte hori honako formula erabilia kalkulatu da:

$$P_d = P_s * (V_d * D)^{(k_1+k_2+k_3+...+k_n)-1}$$

Non:

P_d = arazketa prezioa

P_s = indarrean dagoen saneamendu prezioa.

V_d = baimendutako isurketa bolumena, eguneko.

D = isurketak muga gainditu duen egun kopurua.

K= Erregelamendu honetako 1. taulako parametro bakoitzeko zenbat aldiz gainditu den muga.

K-ri 1000ko balorea emango zaio, 6.1. artikuluaaren arabera, debekatutako isurketa egiten bada.

1. taulan ezarritako mugak behin baino gehiagotan gainditzen badira erabiltzaileari isurtzeko baimena kenduko zaio.

Erabiltzailearen batek 1. taulan aurreikusi ez den substantziaren bat isuriko balu, kasu bakoitzean aztertuko litzateke isurketa-muga.

7. artikulua.- Ikuskatzea

Behar bezala kreditatutako Zarauzko Udaleko pertsonalak erabiltzailearen instalazioetara sarbidea izango du.

Ikuskatze lanetan laginak hartu, emariak neurtu, eta euri-uren sareak, isurketa orokorra osatzen duten banakoen isurketak eta isurketa orokorra aztertu ahal izango dituzte. Gainera, isurketa-baimenean ezarritako kontrol-elementuak ikuskatu, neurtutako datuak bildu, erabiltzailearekin batera ur-balantzea egiaztatu, hondakin toxiko eta arriskutsuak behar bezala kudeatzen ote diren ziurtatu eta araudi honetan ezarritako gainerako betebeharrak betetzen direla egiaztatu ahal izango dute.

Ikuskaritzak egiten ez uzteak edo datuak nahiz laginak ez emateak desobedientzia-zigorra ekarriko du eta legez kanpoko isurketatzat hartuko da. Horren ondorioz isurketa-baimena eteteko espedientea irekiko da.

Ikuskaritza amaitu ondoren, gertatutakoa aktan jasoko da eta erabiltzailearen ordezkariak eta ikuskariak sinatuko dute.

8. artikulua.- Aurretratamendua

Ezarritako mugak gainditzen dituzten hondakin-urak isurtzen dituzten erabiltzaileek dagozkien aurre-tratamenduak egin beharko dituzte, Erregelamendu honetan ezarritako mugak betetzen dituztela bermatzeko.

Aurretratamendu hau egiteko beharrezko instalazioak estolda-sare pribatukoak izango dira, eta behar adina xehetasunekin deskribatu beharko dira isurketa-baimenaren eskarian. Eskari horri dagokion proiektua eta horren eraginkortasunaren azterketa eta kalkulu justifikatzaileak erantsiko zaizkio.

Isurketa-baimena aurretratamenduaren eraginkortasunak baldintzatuko du, hala, isurketak aurreikusitako emaitzak betetzen ez baditu, baimen hori indargabetuta geratuko da eta hondakin-urak estolda-sare publikora isurtzea debekatu egingo da. Orduan, erabiltzaileak hondakin-urak estolda-sare publikora isurtzea eragozteko behar diren lanak egin beharko ditu, hori egiteko eskatu eta 24 orduko epean. Bestela, Zarauzko Udalak isurketa hori eragozteko behar diren lanak egiteko ahalmena izango du, beti ere, erabiltzailearen kontura.

Erabiltzaileak isurketak Erregelamendu honetan ezarritako mugetan mantendu ezin baditu, isurketa horiek sortzen dituen jarduera eten edo isurketa berezien planta zentralizaturen batera kanporatu beharko ditu, indarrean dagoen araudiak ezarritako helburua betez.

Zenbait erabiltzaile salbuespenez isurketen aurretratamendua egiteko bilduko balira, baterako isurketa-baimena lortu beharko lukete azken efluentarako. Titularra bakarra izango litzateke, baina taldea osatzen duten guztiek sinatu beharko lukete. Isurketa baldintzak betetzeko erantzukizuna titularrena izango da eta, solidarioki, kide bakoitzarena.

9. artikulua.- Larrialdi-egoera

Beren jarduerarengatik gai debekatuak edo baimenduta ez dauden kontzentrazioetan isur ditzaketen erabiltzaileek neurri egokiak hartu beharko dituzte Erregelamendu honetan ezarritakoa hautsiko luketen ustekabeko isurketak eragoztearren. Debekatutako substantziak isurtzeko arriskua baldin badago, erabiltzaileak berehala Zarauzko Udalari jakinarazi beharko dio instalazioak babesteko neurri egokiak hartzearren.

Ondoren, behean adierazten diren datuak jasoko dituen txosten xehekatua bidaliko dio Zarauzko Udalari:

- Isurketaren ezaugarri fisiko-kimikoak. Tipologia.
- Isurketaren bolumena.
- Iraupena.

- Deskargaren kokapena.
- Deskargaren eragileak.
- Isurketa horiek etorkizunean berriro ere sor ez daitezzen hartutako neurriak eta zuzenketak.

Zarauzko Udalak larrialdi edo arrisku-egoera sortu zuten arrazoiak aztertu ahal izango ditu.

Atal honetan zehaztutako istripuek eragindako lanen zenbatekoak (garbiketa, sareen edo instalazioen konponketa, arazketak, etab.) kaltea eragin duen erabiltzaileak ordaindu beharko ditu, beti ere, izan ditzakeen bestelako ardurez gain.

10. artikulua.- Laginak eta analisiak

Analisiak, berehalako laginen, lagin konposatuen edo integratuen gainean egingo dira, beti ere emariarekiko proportzioan. Lagin hauek edozein isurketa indibidual edo orokorretan eta edozein tartetan aterako dira. Nolanahi ere, alderdi guztiak hartuko dira kontuan lagina ahalik eta adierazgarriena izateko.

Erabiltzaileentzako lagin-puntua kontrol-kutxeta izango da. Hala ere, behar izanez gero, banakako isurketak lagindu daitezke, kontrol-kutxetan beste isurketekin nahastu baino lehen.

Erabiltzaileari kontrol-kutxetan instalatzea eskatu zaion ekipoa behar bezalako funtzionamendu eta kalibrazio-baldintzetan egon beharko du.

Erabiltzaileek estolda-sare publikora egindako isurketen autokontrola egin beharko dute; Zarauzko Udalak dagokion isurketa baimenean ezarritako maiztasunarekin igorriko dituzte.

Zarauzko Udalak bidezko deritzon maiztasunarekin egin ahal izango ditu kontrol-analisiak, «Standard Methods for the Examination of Water and Wastewater»-ean laginak hartzeko eta kontserbatzeko zehaztu diren arauak aintzat hartuz.

Zarauzko Udalak jasotako laginak erdibitu egingo dira eta horietako bat erabiltzailearen eskueran utziko da eta bestea Zarauzko Udalak aukeratutako laborategi homologatuan aztertuko da, isurketen analisirako ondoren adierazitako txostenetan identifikatutako analisi-metodoak erabiliz: American Public Health

Association (APHA), American Water Works Association (AWWA) eta Water Environment Federation (W.E.F.) erakundeek argitaratutako "Standard Methods for the Examination of Water and Wastewater", eta Une-En eta ISO arauak.

Analisirako metodoak aldaketetara eta indarrean jarriko diren metodo berrietara egokituko dira.

Analisiaren emaitzetan adostasunik ez badago, Zarauzko Udalak definituko ditu laginketa-forma eta mota, zehaztu beharreko parametroak, eta laginketa hori egingo duen laborategi homologatua. Laginketaren edo laginketen kostua eta ziurtapen-analisia erabiltzailearen kontura izango dira, baldin eta emaitzari aurretik lortutako emaitzatik \pm %20 baino alde handiagoa antzematen ez bazaio.

11. artikulua.- Isurketa-baimena

Hondakin-urak estolda-sare publikotik hustu ahal izateko Zarauzko Udalaren baimen berezia behar da. Horren helburua honakoa da: erabilpena ezarritako arauekin bat datorrela eta hondakin-uren konposizioa eta ezaugarriak zehaztutako mugekin bat datozela bermatzea. Baimen horri isurketa-baimena deritzo.

A eta B motetako erabiltzaileen isurketa-baimena lehen erabilerako udal baimenak dakar bere baitan. C motako erabiltzaileek isurketa-baimena Zarauzko Udalarri eskatu beharko diote. Aipatutako baimena eskatzeko ondoko agiriak aurkeztu behar dira:

- Jardueraren izena eta gizarte-egoitza.
- Uraren jatorria: emaria eta erabilera.
- Hondakin-urari ezarritako aurretratamenduen deskribapena eta horien eraginkortasuna zehazten duen proiektu teknikoa.
- Estolda-sare publikora isuritako uraren ezaugarriak, emariak eta horien erregimena bereziki adierazita, eta Erregelamendu honetan mugak ezarri zaizkien substantzien kontzentrazio eta ezaugarriak.
- Estolda-sare publikora isur daitezkeen lehengaien edo landutako produktu likidoen biltegitratze-elementuetan sor daitezkeen ezbeharren prebentziorako hartutako segurtasun-neurriak.

- Bilketarako barne-sarearen, aurretratatamendurako instalazioen, kontrol-kutxetaren eta segurtasun-neurrien planoak.
- Isurketak zehazteko eta ezaugarriak adierazteko beharrezko datu guztiak.

C motako erabiltzaileek kolektoreetako isurketa-baimena lortu behar dute lehen erabilerako udal baimena erdietsi aurretik.

Jarduera-baimena behar ez duten ekimenek, ireki aurretik, kolektoreetako isurketa-baimena lortu behar dute.

Eskarian adierazitako datuak ikusita eta datu osagarriak eskatzen ez bada, Zarauzko Udalak, 2 hilabeteko epean, honakoa egin ahal izango du:

- Eskarian aurkeztutako datuak egiaztatuz gero, besterik gabe baimena eman.
- Udal baimenean zehaztuko diren baldintzen arabera baimena eman.
- Baimena ukatu, horretarako arrazoiak azalduz.

Isurketa-baimena, bere izaera autonomoaz gain, industri jarduerak ezarri eta martxan jartzeko beharrezkoa den lehen erabilerako udal baimena lortzeko baldintzetako bat da. Beraz, isurketa-baimena indargabetuta geratuko balitz, gauza bera gertatuko litzateke lehen erabilerako udal baimenarekin eta jardueraren funtzionamendua eten egin beharko litzateke.

Zarauzko Udalak isurketa-baimena baliorik gabe utziko du erabiltzaileak Erregelamendu honetan edo isurketa-baimenean zehazten diren debeku eta muga espezifikokoak betetzen ez dituzten hondakin-urak behin baino gehiagotan eta eskakizunei muzin eginez isurtzen baditu.

Isurketa-baimena baliorik gabe utziz gero, ezingo da isurketarik egin estolda-sare publikora. Hori horrela, Zarauzko Udalak estolda-sare publikoan edo erabiltzailearen sare pribatuan isurketa horiek saihesteko beharrezko lanak egin ahal izango ditu, beti ere, erabiltzailearen kontura.

Zarauzko Udalak isurketa-baimena aldatzeko izapideak egingo ditu honako kasu hauetan:

- Aurreko isurketa-baimenaren titularra aldatzen direnean.
- Isurketaren edo elementu kutsatzaileen bolumenean aldaketak daudenean, baldin eta aurreko isurketa-baimenean baino %10 gehiago isurtzen bada.
- Produkzio prozesuetan eta biltegi eremuetan aldaketak gertatzen direnean.
- Aurreko baimena lortu zenetik lau urte igarotzen direnean.

12. artikulua.- Erabiltzailearen betebeharrak

C motako erabiltzaileek honako betebeharrak izango dituzte:

- Isurketak emandako baimenean adierazitakoaren arabera egitea.
- Zarauzko Udalari titulartasun-aldaketa jakinaraztea.
- Isurketa-bolumenean edo kontzentrazioetako parametroetan izandako %10etik gorako edozein aldaketa jakinaraztea.
- Isurketa-baimen berria eskatzea, merkataritza-jardueran edo industri prozesuan aldaketa kualitatibo edo kuantitatiborik egongo balitz.

Zarauzko Udalak erabiltzaileei aurretik adierazitako betebeharrak betetzeko eskatu ahal izango lieke, baldin eta dagokien aldaketen berri izango balu.

13. artikulua.- Arau-hausteak

1.- Honakoak hartuko dira arau-haustetzat:

- a) 6.1. atalean jasotako debekuak aintzat hartu gabe isurketak egitea.
- b) 6.2. ataleko 1. taulan ezarritako mugak gaindituz isurketak egitea.
- c) Ikuskaritza, zaintza eta kontrol-funtzioak oztopatu edo eragozteak.
- d) Egingo den edo dagoeneko egin den isurketa ezagutzeko beharrezkoa den informazioa ukatu edo eman nahi ez izatea, Zarauzko Udalak eskatu arren.

- e) 12. artikuluan erabiltzaileari ezarritako betebeharrak ez betetzea.
- f) Arrisku edo larrialdiko edozein egoera ez jakinaraztea.
- g) Titulartasun-aldaketen berri ez ematea.
- h) Erregelamendu honen 12. artikuluan ezarritakoaren arabera, jardueraren edo isurkinen kalitatearen berri ez ematea.
- i) Orokorrean, Erregelamendu honetan ezarritakoa bete gabe edozein jarduera edo ekintza burutzea.

2.- Arau-haustek honela sailkatzen dira:

2.1. Arinak

- a) Estolda-sare publikoan, instalazioetan, araztegietan edota hirugarren pertsonengan 450,76 euro baino gutxiagoko kalteak eragiten dituzten egiteak eta ez-egiteak.
- b) Ikuskapen, zaintza eta kontroleko eginkizunei eragozpenak jartzea.
- c) Araudi honetan edo isurketa-baimenean ezarritako mugak ez betetzea, desberdinak baldin badira.
- d) Titulartasun-aldaketen berri ez ematea.
- e) Jardueraren edo isurkinen kalitatearen aldaketen berri ez ematea.
- f) Araudi honetako edozein debeku ez betetzea edo bete beharrekoak ez egitea; beti ere, arau-hauste larri edo oso larriak ez direnean.

2.2. Larriak

- a) Estolda-sare publikoan, instalazioetan, araztegietan edota hirugarren pertsonengan 450,76 euro eta 4.507,59 euro bitarteko kalteak eragiten dituzten egiteak eta ez-egiteak.
- b) Debekatutako isurketak egitea.

- c) 13. artikuluaaren 2.1. ataleko b, c eta d atalek xedatutakoa ez betetzea, aldez aurretik arrazoi berberagatik beste zigor bat jarri baldin bazaio.
- d) Arrisku edo larrialdi egoera baten berri ez jakinaraztea.
- e) Egin beharreko edo egindako isurketaren berri zehatza izateko Zarauzko Udalak eskatutako beharrezko informazioa emateari uko egin edo zailtasunak jartzea.

2.3. Oso larriak

- a) Araudi honetan zerrendatutako arau-hauste arin eta larriei dagozkien egiteak eta ez-egiteak, baldin eta estolda-sare publikoan, instalazioetan, araztegietan edota hirugarren pertsonengan 4.507,59 euro baino gehiagoko kalteak eragiten baldin badituzte.

3.- Arau-hausteen ondorioz, ondoren adierazitako zigorrak edo betebeharrak ezarriko dira:

- a) Isuna.
- b) Isurketa-baimena zuhurtziaz indargabetzea.
- c) Isurketa-baimena behin- betiko, erabat edo partzialki etetea eta lizentzia kentzea.
- d) Estolda-sare publikora nahiz pribatura egindako isurketak eragozteko beharrezko obrak egitea.

4.- Hutsegite arinek legeriak zehazten duen zenbatekoaren araberako isuna izango dute.

- Hutsegite larriak baimena aldi baterako kentzea ekarriko du eta zigorra eragin duten arrazoiek dirauten bitartean iraungo du.
- Hutsegite oso larriei behin-betiko baimena kenduko zaie zigor moduan.

5.- Egindako arau-hausteak estolda-sare publikoa, honen ustiapenez eta mantentzeaz arduratzen diren pertsonen osasuna edo arazketa-prozesua eta

Jabetza Hidrauliko Publikoaren segurtasun fisikoa arriskuan jarriko balu, zigor-espeditentearen ikuskatzaileak isurketa horien berehalako gelditzea aginduko luke, eta, eskakizuna bete ezean isurketa-baimena zuhurtziaz indargabetzea.

6.- Zigor-espeditenteak administrazio publikoen zehatzeko ahalaren legediarekin bat etorritik bideratuko dira eta ezarritako isunak borondatez ordaintzen ez badira premiamendu bidez kobratuko dira.

7.- Ofizioz nahiz Kontsortzioaren proposamenez zigor-espeditenteak irekitzea udalerriko alkateari dagokio. Alkatearen eskumena izango da espeditentea bideratzea, ebaztea eta dagokion zigorra ezartzea, hau edozein delarik ere.

8.- Aurreko atalean aurreikusitako jarduketaz gain, Udalak beste erakunde eskudunei espeditenteak irekitzeko eskatu ahal izango die, indarrean dagoen legeriarekin bat etorritik.

9.- Zigorrak alde batera utzita, legea hausten dutenek eragindako kalteak konpondu eta sortarazitako galerak ordaindu beharko dituzte. Erakunde zigortzaileak ezarritako du ordaindu beharreko kalte-galeren zenbatekoa, Kontsortzioaren edo Udalaren proposamenez, kasuaren arabera.

14. artikulua.- Zigorrak

1.- Zigorrak ezartzeko kompetentzia Udalari dagokio indarrean dagoen legediaren arabera.

2.- Isunak nahiz sor daitezkeen kalte-ordainak, premiamenduzko bidetik eskatuko dira.

3.- Sor daitezkeen erantzukizun zibilak edozein izanda ere jurisdikzio eskudunaren bitartez ebatziko dira.

15. artikulua - kalteak konpontzea

1. Kasu bakoitzean jarriko den zigorraz gain, arau-hausleak eragiten dituen kalteak bere gain hartu eta isurketaren ondorioz kaltetutako ondasunak berritu beharko ditu.

2. Zarauzko Udalak egoki iritziz gero, konponketa arau-hauslearen kontura egin dezake.
3. Arazketako kostuak Erregelamendu honen 6.2 artikuluan ezarritakoaren araberakoak dira.
4. Arazketako kostua Gipuzkoako Ur Kontsortzioaren Batzar Nagusian onartuko da eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da.

EGINBIDEA.- Jasoarazteko Araudi hau, hasierako izaeraz, 2005eko otsailaren 23an egindako osoko bilkuran onetsi zuela Udalbatzarrak.

Zarautzen, 2005eko otsailaren 24an
Idazkaria

EGINBIDEA.- Jasoarazteko Araudi honen testu osoa 2005eko martxoaren 10eko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean (zk. 47) argitaratu zela, eta 2005eko apirilaren 1ean sartu zela indarrean.

Zarautzen, 2005eko apirilaren 4an
Idazkaria

I. ERASKINA

1. TAULA

PARAMETROAK


MUGAK

Gehienezko emaria

Produkzio-orduen batezbesteko emariaren
hirukoitza baino txikiago

T ^a	C	45
pH		5,5 - 9,5
Eroankortasuna	μS/cm	5.000
Kolorea	Disoluzioan nabariezina	1/50
Garbikariak	mg/l	10
Solido lodiak		Ez dira agertzen
Sedimentuzko solidoak	ml/l	20
Esekidura-solidoak	mg/l	600
Olioak eta koipeak	mg/l	100
DBO ₅	mg/l	500
DQO	mg/l	4 aldiz DBO ₅
N-guztira (organikoa+amoniakala+NO ₂ +NO ₃)	mg/l (N)	75
N-NH ₃	mg/l (N)	40
P-guztira	mg/l (P)	15
SO ₄	mg/l	1.000
SO ₃	mg/l	5
S ⁼	mg/l	1
Cl	mg/l	1.600
Fenolak	mg/l	5
Fe	mg/l	20
Zn	mg/l	3
Cr guztira	mg/l	1
Cr VI	mg/l	0,3
Cu	mg/l	1
Cd	mg/l	0,1
Ni	mg/l	2
Pb	mg/l	0,5
Hg	mg/l	0,01
As	mg/l	0,1
Ba	mg/l	10
Sn	mg/l	2
Mn	mg/l	2
Ag	mg/l	0,5
Se	mg/l	0,1
Al	mg/l	20
Cn guztira distilazioan	mg/l	0,5
Cn libreak	mg/l	0,1
Zianatoak	mg/l	2
Kloro librea	mg/l	0,5
Fluoruroak	mg/l	10
Toxikotasuna	equitox/m ³	25
AOX	mg/l	2

II ERASKINA



1 MOTAKO KUTXETA

